

9» Akitaniarekin eta EA Erekin euroeskualea osatzeko eskatu dio oposizioak Sanzi

21» PAMen ustez, Israelak Jerusalem gehiago eraikitzeak galbidera darama bake prozesua

Ostatuen ordutegia Baionan →

Dantxarinea Ipar Euskal Herriko diskoteka bihurtu da

Ipar Euskal Herriko gazteen dantzalekua Nafarroa Garaian dago, Dantxarinean. Astebururo ehunka gazte doaz hara, eta larunbatetan eta jai bezperetan, Le basque Bondissant eta D.A.T konpainiek Ipar Euskal Herrian parerik ez duen garraio egitura osatu dute. Zazpi zerbitzu daude hara joateko. Abiapuntuaren

arabera, bost edo hamar eurotan egiten dute joan-jina. Gaueko bederatzietan edo hamaiketan abiatzen dira autobusak Baiona, Angelu, Hazparne eta Ahurtitik (Lapurdi). Donapaleutik eta Armentaritzetik (Nafarroa Beherea) ere abiatzen dira, eta Landetatik, hala nola Akize, Orthez eta Peyrehoradetik. Goizaldeko bostetan itzultzen dira, eta oren bat beranduago heltzen.

120

■ **Izenpetze bilketa.** Baiona Ttipiko auzoek izenpeak biltzen hasi dira, pairatzen dituzte harrabots eta desmasiei bukaera emateko eskatzeko. 120 lagunek izenpetu dute eskaera orria, eta Herriko Etxeak neurriak hartu arte atxikiko dute kanpaina.

12

■ **Salaketak polizia etxean.** 2009ko azken hiruhilekoan Baiona Ttipiko hamabi auzokidek ezarri zuten salaketa polizia etxean. Poliziak ostatuko jabeak galdekatu zituen, eta zenbait kasutan oharra egin, baina auzitegiak ez du itxiera agindurik ebatzi geroztik.

Gazteentzako eskaintzak hutsaren hurrengoak direla diote gazteek, eta ildo hori jorratzeko eskatu diote Herriko Etxeari, jazarpenak arazoa tokiz aldatuko duelako deus lortu gabe.

Gazteek topalekuak nahi dituzte



Ikasleek gazteentzako tokiak eskatzen dituzte jazarpen neurrien ordez. **BERRIA**

A.Renteria Baiona

Baionako Paul Vert ikaslearekin ari dira ikasten Damian Haranburu, Anthony Laine, Mathieu Dassie eta Xanti Legaryo. Baiona, Angelu, Aiherra eta Landetan sortuak, Baiona Ttipia besta gunetzat daukate, eskolatik hurbil egoteaz gain historikoki bestaren ikur eta gazteen topaleku izan delako.

Ez dute begi onez ikusten ostatuen itxiera tenorea aitzinatzeke mehatxua. «Ostatuak goizaldeko lau edo bostetan itxi behar dira, eta prezioak apaldu», dio Dassiek. Ulertzen dute auzoen arrangura, baina, haien iritziz, ez dago deus berririk. «Betidanik besta gune

eta gazte topalekuak izan da Baiona Ttipia, eta horrela segitu behar du», nabarmendu du Laineek. Hamarkada askotan horrela izan da, eta benetan zarata arazo baltiz etxeetako berinak bikoitzak izanen liratekeela uste du. Alta, Baiona Ttipiko etxeak monumentu historikoak dira, eta legeak ez du horrelakorik baimentzen.

Ez dute arazoa gordetzeko guttzirik. Ostatuak ixten dituztelarik borrokak egoten direla diote. Poliziaren presentzia ere onuragarria izan daitekeela diote, baina ez kontrolak egin eta botilak kentzeko, segurtasuna eskaintzeko baizik. Joan den larunbatean parranda egin zuten. Hogei euro xahutzen dituzte gehienez. Horrekin gau osoa irautea ezinezkoa



Ostatuak goizaldeko lauretan edo bostetan itxi behar dira, eta prezioak apaldu»

MATHEU DASSIE
Ikaslea

«Betidanik besta gune eta gazte topalekuak izan da Baiona Ttipia, eta horrela segitu behar du»

ANTHONY LAINE
Ikaslea

«Asteburuan ez dago deus egiteko Baionan; Herriko Etxeak ez du deus proposatzen»

XANTI LEGARYO
Ikaslea

dela diote, eta, horregatik, karrikara berandu ateratzen dira. Aitzinetik etxeetan biltzen dira, eta han edaten dute.

Debekurik ez

Karrikan edatea zigortzen du legeak. Hala ere, hori ekiditea ezinezkoa dela diote gazteek. Poliziak toki batean kontrolak egiten baditu gazteak bertze toki batera joanen direla diote. Eta Baionako karrika eta zoko guztietan Poliziak jarriko balute lagunak etxeetan bilduko liratekeela.

Gurasoen garrantzia ere nabarmendu dute. Izan ere, gurasoek bentetan erosten dituzte edariak eta usu, seme-alabentzako edariak ere han erosten dituzte. Hala, «hipokresia» hutsa deritzo-

te Baionako Herriko Etxearen jarrierari.

14 eta 15 urteko gazteen mozkorraldiek, hala ere, kezka eragiten diete. Besta egiteko usaiarik ez dutela nabarmendu dute. Baina besta egiteko ohitura ostatuetan, jai giroan eta topalekuetan egiten dela diote.

«Asteburuetan ez dago deus egiteko Baionan, Herriko Etxeak ez die deus proposatzen gazteei», dio Legaryok. Gazteak moduko egoitzak antolatzea proposatu du, gazteentzako eginak eta gazteek kudeaturik. Herriko Etxeak osatu duen batzordea ere aipatu dute. Eragile ugari bildu dira bertan, baina ez dago gazteen ordezkariarik. «Gu gara arazoa, baina gu gabe konpondu nahi dute».

Ostalerrek ez dute onartzen haien ordutegia murriztea

Azken urteotan egindako inbertsioen ondoren, lanbidearen etorkizuna arriskuan jarriko lukeela diote

A.R. Baiona

Pierre Barrat da Baionako ostalerren elkarteren presidentea. Ostalerrek bat egin dute errateko ordutegi murrizketak arriskuan ezarriko lukeela Baionako osta-

tuen geroa. «Baiona Ttipian eragitea bilatzen badute ere, hiriko ostatu guztiei eraginen lieke».

Azken urteotan egin dituzten inbertsio handiak ekarri ditu gogora: ostatuko harrabotsa ekiditeko neurriak, jantokiei sukaldetaren eskatutako baldintzak eta erretzaileak eta ez erretzaileak bereizteko asmoz egindako lanak. Tabakoaren Legea indarrean sartu denetik bezero ugari galdu dituzte. Jendeak ohiturak aldatu ditu, eta, gutxi baltiz, krisialdiarekin gero eta bezero

gutxiago dabil ostatuetan. Gainera, Baionak alde bateko erabakia hartuko balu eta ondoko herriek ez, bezeroak hara joanen liratekeela uste dute ostalerrek. «Hori indarrean jartzen badute, jabeak ostatuak ixtera beharko dituzte». Ostatuei esker familia ugari bizi direla nabarmendu du.

Kaleko edana jomugan

Egiazko arazoa harrabotsa, zikin-keria eta segurtasun eza dira, ostalerren iritziz. Harrabotsaren kontrako neurri bat etxeetako



Pierre Barrat. **BERRIA**

leihoetan berinak bikoitzea litzatekeela diote. «Herriko Etxeak jendea nahi badu karriketan, hori suspertzeko neurriak hartu beharko ditu, ez kontrakoak», dio Barratek.

Adingabean alkohol kontsumoa neurrigabekoa dela dio Barratek. Gurasoen erantzukizuna aipatu behar dela erran du. «Nola uler daiteke ez arduratzea, egun-sentiraino ez badira itzultzen etxera edo mozkor itzultzen direlarik neurriak ez hartzea?», galdegindu du.